

P.A.M.

1 Sorrera. 2000. urtearen bueltan.

2 Izena. Talde kide batzuk Dantzut eta Julio Kageetan jo izan dugu eta, egia esan, beti izan gara nahiko txarrak izenak ipintzen. 'PAM' izena taldekide baten esperientzia pertsonalean dago oinarrituta. Horrez gain, itzelezko gaitasuna dugu matematiketan! Gainera, sigla hauek joko handia ematen dute gure bide ganberroa jorratzeko eta guk beti lotu izan dugu rocka dibertimenduarekin.

3 Kideak. Lau gara: 2 gitarra (Carlos Balseiro eta Iker Saenz de Zaitegi), baxua (Markos Gimeno) eta bateria (Juanmi Bravo). Bateria ezik, beste denek egiten dute ahots lana.

4 Estiloa. Rock & Roll-a eremu zabalenean.

5 Abestiak. Guk sortutakoak dira, nahiz eta gure erreperatorioan beste talde batzuen 4 edo 5 bertsio dauden. Hiru abeslariak sortzen dituzte abestiak, eta gaiak ba-



Argazkia: Klemen Corredera

koitzaren izaeraren arabera izaten dira.

6 Entseguak. Urte dezente Mallabiko Osma auzoko lokal batean eman eta gero, Eibarko Legarre auzoan entseatzen dugu orain. Ikerrek Kokein talde eibartarrean ere jotzen du eta eurekin konpartitzen dugu lokala. Astean behin entseatzen dugu normalean, opor luzeak hartuta.

7 Azken kontzertua? Aurtengo San Juan jaietan, Eibarren.

8 Hurrengoa? Norbaitek deitzen digunean.

9 Diskorik, maketarik... Lau disko kaleratu ditugu (2002an, 2004an, 2006an eta 2009an) eta gurekin kontaktuan ipintzea da erosteko biderik errazena. Gainera gure webgunean abestiak doan bajatzeko aukera dago. Zoritzarrez, gure herrian egon den talderik oparoenara gara, bai disko eta bai ibilbideari dagokionez.

10 Kontaktua. www.putoamoak-matematiketan.net webgunean, putoamoakmatematiketan@gmail.com helbide elektronikoan edota 665 709 115 telefono zenbakian (Markos). Gainera, myspace.com/putoamoakmatematiketan edo twitter.com/zatilau.

Dorleta Vidal

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

San Antonio

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta
INPORTAZIOZKO
GARAGARDOtan
berezitasuna

943 17 39 78